



Urnietan asteburua hitzorduz beteta dator, Sanmielen lehen asteburuan

Azken ordura arte ez dute gaueko kontzertuen berri eman, eta aurreko talde aski ezagunak arituko dira: Esne Beltza edota Ze Esatek!

Sanmielen aurtengo hasiera "alternatiboa" izango da, gazteek deituriko kalejirarekin eta txosna irekierarekin. Ostegun arratsalde honetan izango da hori, eta ondoren dagoeneko klasiko bilakatu den patata tortila lehiketa izango da. Azken urteotako joerari jarraituz, osteguneko mozarro gaua izango da. Flamenkoari eskainiko diote gaua, DJ Katxorren musikarekin.



Xabi Solano Esne Beltzako kantaria. Ostiral honetan Urnietan arituko dira.

Ostiral arratsaldean, berriz, urnietar askoren bihotzean dagoen Miela Marizulotik iritsiko da Urnietara jaiak urnietarren

artean bizitzera. Jaien hasiera ofiziala horixe izango da. Aurreko ere bi asteburueta luza-tuko dira jaiak, eta ezin aipatu

Aurreko asteburuan arrakasta handiz antolatu ziren bertso afaria edota sega desafioa

gabe utzi aurreko asteburuan arrakasta handiz antolatu ziren bertso afaria edota sega desafioa. Bi hitzordu horiek urnietarrak jaiaren gose diren adierazgarri dira. Jaiaren aurreko ekitaldian, Mikel Pagola alkateak jaietzeko gonbitea luzatu zien herrikideei. Sor daitezkeen trafiko eta soinu eragozpenen aurrean, pazientzia eskatu zuen.

Poxta Zahar taldeak bere aldetik jai gune berri bat sortzea erabaki du, Lekaio ondoan.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Lander Etxaniz gogoan



Lander bere euskaltzaletasunagatik ezaguna egin zen Urnietan zein Lasarten. Hil zela 50 urte bete dira udan.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Elola, zinegotzi berria Andoainen



Uztaileko Udal batzaraldian Gregorio Olasagastik EAJ-PNVko zinegotzi kargua utzi ostean, Ainhoa Elok ordezkatzeko du. Laster hartuko du kargua.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Mikel Iturria, profesionalen artean tokia eskatzen ari den txirrindularia



Mikel Iturria urnietarra.

"Hamar urte atzera, profesionaleko taldea aukeratuko nuke; gaur zain egon behar dut".

Egin beharrekoa egin duenaren patxada sumatzen zaio Mikel Iturria txirrindulariari (Urnietarra, 23 urte). Bizikleta gainean zazpi garaipen eta hemezortzi podiumekin bukatu du denboraldia, eta itzuli onene-

tan ere bost aldiz sailkatu da Top 5ean. Eta halere, zain, profesionaletan jarduteko aukera izango duen jakin arte. Zain, baina itxaropentsu: "Ate batzuk ireki dira azken egunetan".

Euskaldun Torneoa irabazita bukatu du denboraldia Iturriak. Ez zuen espero, Altsasuko proba, azkena, esprintean erabakitzeko aproposa zelako, "eta ni esprintean txarra naiz.

Irabazteko ia-ia bakarrik helmugaratu behar dut", dio. Garaipenak bere autoestimua handitu du, Euskaldun Torneoa irabazi gabe konforme bazen ere.

Egun gogorak, luzeak datorzkio orain. Ordezkariaren deia zain, eskaintzaren bat ba ote dagoen jakiteko. Zaildua da zaingintzan, eta baikoarra da.

[KIROLA, 7. ORRIALDEA]

Euskalduna maila berrian, lidergotzan



Gurrutxaga lehen taldeko entrenatzailea.

Aurreko denboraldian Erregionaleko ohorezko mailara igo zen Andoaingo futbol taldea, Iñigo Gurrutxaga entrenatzaile gaztearen agindupean.

Eta ezin hobe ekin dio du aurtengoari, lehen jardunaldietan lidergoa eskuratuz. Grinaz bizi du futbola Gurrutxagak, jakutako partidak bideoz grabatu eta akatsak-eta aztertu nahi izaten dituen temati horietakoa da. Hitz jario polita dauka futbola gaitzat hartuta, eta aditu gisa jarduten du Tito Irazus-

ta kazetariak Teledonostin gidatzen duen Realari buruzko tertulian.

Gurrutxaga pozarren dago jokalarien inplikazioarekin eta klubak eman dio askatasunarekin. Euskaldunak etorkizun oparoa duela esatera ausartzen da.

[KIROLA, 6. ORRIALDEA]

Andoain Motorfest

Antolatzaileak bigarren edizioa prestatzen hasi dira urriaren 17rako, eta datozen egunetan izena eman beharra dago. Motorzaleek goizean hasita irteera antolatuko dute, Goiburu aldean bazkaltzeko. Eta iluntzean, horrelako jaietan ohitura denez, rock kontzertuak.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Lander Etxaniz gogoan



*Ikasketak egitera herri-
tik inoiz atera ez bazen
ere, urnietarra oso per-
sona jakintsua izan zen*

Leandro Etxaniz Aranburu, Lander hilzela 50 urte bete dira aurtan, 1965. urteko uztailaren 17an hil baitzen. 1897. urtean Lasarten sortua, 1920tik heriotzera arteko 45 urteak Urnietan bizitu zen. Eta bertan jarraitzen dute bere ondorengoak, Idiazabal kaleko burdindegi ezagunaren kargu. Lander, bere euskaltzetasunagatik ezaguna egin zen Urnietan zein Lasarten. Gaur egun Lasarteko Landaberri ikastola denari, bere hastapenean 'Lander Academia' izena jarri zitzaion Etxanizen oroimenez.

Ikasketak egitera herri-
tik inoiz atera ez bazen ere, oso pertsona jakintsua izan zen. Euskaraz gain, gaztelera, frantsesa eta latina hitz egiten omen zituen. Euskara eta gaztelera erabili zituen bere idazlanetan, eta bietan berezko zuen trebetasun handia erakutsi zuen.

Urnietako baserriarren artean oso ezaguna zen, berak zuen ganaduentzako pentsu-almazenarengatik. Kamioiarekin, lastoa, haziak

eta pentsua baserriz-baserri banaketa egitea izan zen bere lanbide nagusia, nahiz eta bera, paper artean irakurtzen eta idazten gusturago sentitzen zen. Jexux, Landerrren semeak, aipatu digu, 1936ko guduan, Francoren tropek kamioia kendu egin ziotela eta beraien atzetik nola ibili zen, Bizkaia, Cantabria eta Asturias aldean, kamioia berreskuratzea lortu zuen arte, nahiz eta horretarako frankistentzako lana egitera behartu zuten.

Semeak, miresmenez hitz egiten du aita zenari buruz. "EAJ-PNV alderdiaren inguruko "Euzkadi", "El Día" edota "Argia" aldizkarietan idatzi zuen batez ere euskaraz, batzuetan, Lander bezala sinatuaz eta beste batzuetan "Beste bat" izengoitiarekin. Urte askotan Urnietako kronikaria izan zen". Landerrrek, semeak jasota dituen idatzietan ikusi daitekenez, Urnieta bere inguruak izan ziren bere idazlanetako gai printzipala, Zilegi Mendiak, Azkorte, eta Adarra, besteak beste. Hainbat urtetan Sanmioletako programaren hitzaurrea ere berak idatzi zuen. Elizari dagozkion gaetan ere oso aditua zen, beraz, ez zen alferrik izan hainbat urtetan, Lasarteko Brigiden komentuko sakristaia.

PSE-EEren kritika EAJri

Norabide falta eta geldirik egotea egotzi die alderdi sozialistak EAJ-PNVren Udaltaldeari, hauen agintaldiaren lehen ehun egunak bete direnean. Frutosen ustean, lehen hilabeteetan agintaldiaren oinarriak jarri behar dira. Udaltaldeak

kudeaketa soilera mugatu dela, kritika hori egin dio Pagola alkateari. Beraz, Urnietako PSE-EErentzat agintaldiaren hasiera "ezin da ezkorragoa izan". Etorkizunerako egitasmoa PSE-EEK baduela dio, prentsa bidezko oharrean.

Aurreko asteko batzaraldian adierazpena adostu zuten

Errefuxiatuekin bat agertu da Udala

Errefuxiatuak hartzeko prest azaldu da Urnietako udalbatza. **Mikel Pagola** alkateak, Udaltaldeko ordezkari guztien babesarekin, Siria eta inguruko herrialdeetako gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuak hartzeko prestutasuna adierazi zuen. Herrira iristen diren errefuxiatuei udal zerbitzu guztiak eskura jarriko dizkiete: "Krisi humanitario honi modu aktiboan, elkartzunez eta justizia humanitarioz erantzuteko eskatu behar zaie Europar Batasuneko estatu kideetako agintari eta gobernuei".

Horrez gain, konpromisoa hartu zuen gainerako euskal erakundeekin (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Eudel) elkarlanean aritzeko eta euren eskura baliabiderik egokienak jartzeko, plangintza oso baten bidez errefuxiatuen krisiari erantzuna "erarik eraginkorrean" eman diezaieten.



Irailako Udaltaldeko batzaraldia irailaren 22an egin zuten, jaien aurretik.

HRIGINTZA PROGRAMA AURRERA DOA

Ordezkarri guztien baiezko botoak jaso dituen arren, PSE-EEko **Consuelo Frutosek** herriko aparkalekuen hutsunean in-sistitu zuen. Bere esanetan, Urnietako aparkaleku gehiagoren beharra du.

Bestalde, EH Bilduk etxebizitzaren arazoa aipatu nahi izan zuen: "Guk aldeko botoa eman arren, Urnietako etxebizitza sozialen beharra kontuan

hartu nahi dugu. Urbanizazio programaren diru kopurua etxe sozialetan inbertitzeko erabiltzea proposatzen dugu", adierazi zuen **Mikel Izagirrek**. Horretarako, dirua udaletxearen etxebizitzak atontzeko eta eraikuntzak errepukeratzeko bideratu beharko litzatekeela uste du.

Gai honez gain, aho batez onartu zituzten 2016ko jai egunen egutegia eta eraikinen garbiketa kontratua ere.

Udal bulegoetan prozeduraren informazioa eskuragarri dago

Eskualdeko langabetuak kontratatzeke dirulaguntzak

Buruntzaldeko udalerrietan eskualdeko langabetuak kontratatzeke dirulaguntza lerroa zabaldu dute. Enpresak, profesionalak eta laneratzeko sustatzen duten erakundeak izan daitezke onuradunak, eta bereziki 2015eko ekainaren 22a baino lehen eskualdeko udaletakoren batean errolaturik dagoen langabetua.

Enpresak laguntzak jaso ahal izateko lanaldi partzialeko (%50) edo lanaldi osorako lan hitzarmenak eskaini behar dituzte, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean eta gutxienez 3 hilabeteko iraupenarekin.

INFORMAZIO OSOA ANDOAINEN: Udaltaldearen Sustapen Ekonomiko eta Enplegu sailan:

La Salle Etorbidea 6.
Urigain Etxea.
20140. Andoain.

ARGIBIDEAK:

Andoain: Hilario Dorronsoro
943304221
enplegua@andoain.eus
Urnietak: Lorena Etxezarreta
943008000
letxezarreta@urnieta.org

PRESENTACION DE MARIA IKASTETXKO HAUR ESKOLAREN 25. URTEURRENA

Aurreko egunetan hitzaldiak eta beste zenbait jarduera burutu ostean, ospakizun nagusiak aurreko larunbatean egin zituzten. Ibilaldia, jolasak eta puzgarriak izan ziren aukeran paella jateari ekin aurretik. Arratsaldean, photo call sesioa eta zumba erakustaldia. Urteurrena antolatu duten eskolako kideak pozarren daude ospakizunek izan duten erantzunarekin.



Sanmielak

2015 URNIETA

Irailak 27

IX. Inñistor jaia

IX. Iñistorjaia

Jakutegi plazan

12:30 IX. Maldan-gorako Iñistorra
Toka Txapelketa. San Juan plazan

14:00 Herri bazkaria.

16:00 Bertsolariak

- Oihana Bartra (Bilbo).
- Beñat Gaztelumendi (Añorga).
- Iñaki Gurrutxaga (Orio).
- Nerea Elustondo (Legazpi).
- Gai jartzailea:
Amaia Agirre (Villabona).

17:00 “Urnieta Prestu” 2015
izendapena

Juxto Egaña txistulari eta euskaltzalea izango da omendua.

19:00 VII. Maria Arizmendi
irrintzi lehiaketa. San Juan plazan

**Helduentzako menua
(25 euro)**

- Errusiar entsaladilla.
- Itsas-kabra.
- Karrillerak.
- Hojaldrea.
- Kafea.
- Belar txupittoa, whisky edo patxarana.

**Haurrentzako menua
(16 euro)**

- Makarripiak tomatea eta urdaiazpikoarekin.
- Eskalozea txip patatekin.
- Sandwits izozkia.

- URNIETAN
- KANTOI tabernan (San Juan plazan).
 - GURIA tabernan (Idiazabal kalea).

Ausstattung:
 Heizung, Fußbodenheizung,
 Kabel-TV, Internet, Klimaanlage

Legionnaires:
 1. *Legionella pneumophila*
 2. *Legionella* spp.

Redesley:
University of Illinois
Albion, Michigan

Aiurri

Mintzodromoa Andoainen, urriko lehen larunbatean



Talde txikietan eta hizketarako gaia jarrita, euskaraz trebatzeko saioa egingo dute urriko lehen asteburuan. Mintzodromoa deitu diote, Euskal Herri osoan zehar zabaltzen ari den joerari eutsiz. Andoainen herriari itsatsitako eztabaidak sustatuko dituzte, beti ere euskaraz. "Andoain, bi herri" izenburupean herriaren geografia ardatz izango dute. "Euskararen erabilera" aztergaiarekin kaleko erabilerari buruz hausnarketa

egingo dute. Eta herri izaera, noski, kontutan hartuko dute "Herri bizia?" ekimenean.

Urriaren 3an, larunbatarekin, eguerdiko 12:00etan abiatuko da Mintzodromoa. Eguraldi onarekin Juanita Alkain plazan egingo dute. Euriarekin, berriz, Basteroko kanpoaldean.

Izena emateko epea:
Irailak 30, asteazkena.
943 591 704.
andoain@eak.org



Udalak euskara ikasteko gonbitea luzatu die herritarrei. Aurren, gainera, matrikulazioaren kostuaren %50 laguntzetik %75a laguntzera

pasa da. AEK euskaltegian eskaintza zabala da: Euskalduntzeko klaseak, autoikas-kuntza, mintzlaguna, gurasolaguna, etab.

Ikastaroen eskaintza zabala ikasturte berrian

Zuena elkartearen eskaintza zabala

Ehun eta hogeitazkideek osatzen duten Zuena elkarteak urteko batzarra ospatu zuen joan den ostegunean, eta ikastaro eskaintza anitza jakinarazi du jada. Honakoak, hain zuzen: sendabelarrak, pintura, musika, yoga, pilates, tai-chi, zumba, sebillanak, aretoko dantzak, norbera makilatzen ikasteko, arropa konpontzeko eta josten ikasteko ikastaroak.

Irailaren 21ean irekitzen da matrikulatzeko epea, hilaren 27ra arte.

ZUZENDARITZA BERRIA

Emakumeen topaleku izateko jaio zen Zuena elkarteak urteko batzarrik garrantzitsuen egin zuen ostegunean, eta hurrengo bi urteetan zuzendaritza osatuko duten kideak aurkeztu ziren. **Esther Sanchez, Jerusalem Lasterra, Merche Gomez, Flora Barquero, Paquita Ziarrusta, Karmele Lopez, Ana Begoña Beobide, Nekane Lazkano** eta **Josefa Pereira**.

Gogotsu hartu dituzte ardurak denek ere, Nekane Lazkano idazkariak adierazi duenez. "Bi urteko ibilbidea egitea egokitzen zaigu eta gauzak ahalik eta txukunen egiten saiatuko gara. Primeran jardun duen gure aurreko zuzendaritzak, eta estimatzekoa gu bezalako hasiberriei Kristina Lasarte eta Reme Martinek eskaini diguten laguntza, garbi azalduz etorkizunean eman behar ditugun pausoak. Dinamika handia daukan elkarte da Zuena, makina bat ekitaldi aurrera



Zuena elkarteak zuzendaritza berria: Esther Sanchez, Jerusalem Lasterra, Merche Gomez, Flora Barquero, Paquita Ziarrusta, Karmele Lopez, Ana Begoña Beobide, Nekane Lazkano eta Josefa Pereira.

"Norberaren garapen pertsonalari begira, aberasgarria da Zuena bezalako elkarte bateko kide izatea"
Nekane Lazkano

eramaten ditu urtean zehar (ikastaroak, dantza eta antzerki emanaldiak, kultur txangoak...), eta aparteko ahalegin pertsonala eskatuko digu zuzendaritza berriko kide guztiori".

Andoaingo emakumeei elkarteak bazkide egiteko gonbidapena luzatu die Nekane Lazkanok. "Norberaren garapen pertsonalari, lagunartekotasunari, aisialdiari eta beste hainbat alderdiri begira, aberasgarria da Zuena bezalako elkarte bateko kide izatea. Geure bizi-penetatik esan dezakegu hori".

Bestalde, ikuspuntu ekonomikotik ere baditu bere abantailak bazkide izateak, ikasta-

roak merkeago ateratzen baitzaizkie.

Lazkanok zehaztu du elkartearen arauen arabera soilik emakumeak izan daitezkeela bazkide. Hori bai, gogorarazi du gizonezkoek parte har dezaketela ikastaro eta gainerako aktibitateetan. "Dena esatera, aurreko urteetan gizonezko bakan batzuk baino ez dira hurbildu Zuena-ra, areto dantzetara eta sebillanetara batez ere. Ea aurren gehiago animatzen zaizkigun. Merezki dute ikastaroak".

INFORMAZIO ERABILGARRIA:

- Matrikula egiteko edo informazioa eskatzeko, noiz: irailaren 21etik 25era, arratsaldeaz 17:00etatik 19:00etara.
- Telefonoa: 606 929 697. Bestalde, urte osoan asteartero 16:30etik 18:30era bulego irekita dago.
- Egoitza: Extremadura 2-4 kalea.

Matrikulazio epea zabalik dago Andoainen eta Hernanin

Helduen eskola ofiziala

Helduen eskola ikastetxe ofiziala 18 urtetik gorakoentzat da, Eusko Jaurlaritzaren esku dagoena. Arduradunek adierazi dutenez, matrikula epea iraila osoan zabalik izango da. Matrikula doakoa da eta irakasleak, irakasle tituludunak eta espezializatuak dira. Ikasturtea bi lau hilekotan antolatuko da: Iraila-otsaila eta otsaila-ekaina. Eskolak goizez, arratsaldeaz eta gauzez eskaintzen dira. Bigarren Hezkuntza-

ko Graduatua lortzeko eskolak ematen dituzte. Horrez gain, euskara, ingelesa eta informatika alorrean oinarritzko formakuntza.

HEZKUNTZA ARAUTUA

- Idazten edo irakurtzen ikasi.
- Komunikazio trebetasunak hobetu.
- Zure matematika ezagupenak gaurkotu.
- Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortu.

HEZKUNTZA EZ ARAUTUA

- Euskera, astean 2 egunez.
- Ingelesa, astean 2 egunez.
- Informatika, astean 2 egunez.

IZEN-EMATEA

Astelehenetik ostegunera, 10:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 17:00etara. Ostiralean, goizez soilik.

Hernani:

Antziola, 62. 943 335 318.

Andoain:

Nagusia, 4B. 943 304 021.



Miela noiz iritsiko zain

2015, Sanmielak



Urnietako Udalak
gehigarri hau
argitaratuz jairik
zoriontsuenak
opa dizkizue
urnietar guztiei

Urnietako



Jaiaren erdigunea Jakutegi plazan

TXOSNAGUNEAN EGINGO DITUZTE ASTEBURU HONETAKO EKITALDI NAGUSIAK; OTORDUAK ETA KONTZERTUAK.



Asteazken goizean muntaia lanak aurreratuta zeuden, Txosnagunean.

Beste urte batez San Juan plaza ondoan jarriko duten txosnagunea otordu eta musika hitzordu nagusien bilgune izango da.

Jaietan ordu txikietan gehienek ere salto eta dantza egingo duten bitartean, dozenaka herrikide batzuk lanean ari-tuko dira txanda ezberdinetan.

Irudiaren sortzailea

NEREA URALDE ANDOAINARRAK IRABAZI DU AURTENGO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA.



Saria jaiaren aurkezpen ekitaldian jaso zuen Uraldek.

Flamenko gaua ostegun honetan

MOZORROTUTA JOATEKO DEIA EGITEAREKIN BATERA, JAIEN HASIERA ALTERNATIBOA PRESTATU DUTE TXOSNAGUNEAN.



Ostegun arratsaldean ekingo diote jaiari, txosnagunean.

Festazale asko osteguna noiz iritsiko zain dira. Arratsaldean hasita, txosnaguneko elkarteetako kideek burrunba hotsez lagundutako kalejira antolatu dute. Zubitxo plazatik irten eta San Juan plaza aldera gerturatuko dira, txosnaguneari irekiera ofiziala emateko. Lehenik Poxta Zahar taldeak bolatokian prestatu duen guneari

irekiera emango diote, eta handik Jakutegi plazara abiatuko dira. Bertan banan bana irekiko dituzte Asketa, Egape dantza taldea eta Pausoka elkartearen txosnak. Iluntzean hasiera emango diote herri afarian bilakatu ohi den patata tortila lehiaketari. Koadrila ugari biltzen dira, giro dotorea sortuz.



Patata tortila lehiaketa orain urte gutxi jarri zuten martxan, eta urtero dozenaka aurkezten dituzte.

Ingeles Eskola. Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoainen

Zer eskaintzen dugu?

- Haur, gazte nahiz helduentzako eskolak.
- Cambridgeko PETFCE-CAE azterketatarako prestakuntza, adin guztietako ikasleentzat.
- Enpresei zuzendutako eskolak.
- Eskola partikularrak.

Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.

Gazteentzat 2016 eta 2017 EHNZ proiektuak udan.

Ondarreta, 7 behea. ANDOAIN. 943 300 839. www.andoainenglish.com

Jaiez gozatzeko deialdia

UDALAK ETA HERRIKO ERAGILEEK JAEZ GOZATZEKO DEIA LUZATU ZIETEN URNIETARREI.



Pagola, Jauregi, Salaberria, Lizeaga eta Rosco jaien aurkezpen ekitaldian.

Mikel Pagola alkateak “jende guztia” jaiez gozatzeko dei berezia egin zuen, San Miguel jaien atarian egitaraua aurkezteko egin zuten prentsa agerraldian: “Jakin badakigu gehiengoaren gozamenak beste batzurengan kaltea sortzen duela. Trafiko mozketak izango dira, barrakak, musika ordu txikietan... beraz, pazientzia puntu bat ere eskatu beharrean gaude”.

Herritar guztientzat ahalik eta egitarau osatuena egin dutela adieraztearekin batera, aurtengo omenduaren berri eman zuen: “Salesiar familia omendu nahi dugu. 50 urte dira On Bosko salesiarren ikastetxea martxan jarri zela, eta bertako Aisialdi taldeak 25 urte. Horregatik aurten Udalak San Miguel eguneko omenaldia salesiarrei eskainiko die”.

ELKARTASUNEZKO TXEKOR JATEA, AURTEN SUPER H TALDEAREN ALDE
Urnietak laugarren mendeurrena betetzen duela eta, efemeridearekin lotutako hitzorduak aipagai izan zituen. Besteak beste, herriko bi dantza taldeek es-

“50 urte dira On Bosko salesiarren ikastetxea martxan jarri zela, eta Aisialdi taldeak 25 urte ditu. Hori dela eta Udalak aurten salesiar familia omenduko du”

kainiko dituztenak. Alkateak jaietan elkartasunak duen tartea ez zuen oharkabean pasatzen utzi nahi izan: “Miela San Miguel egunean kanpandorrera igoko da, baina jaiak datorren asteburuan segida izango du. Bada nabarmendu behar den ekitaldia, txekor jatea hain zuzen. Harrobia ustiatzen duen Aizkibel enpresari esker egiten da, eta aurtengoa solidarioa izango da. Super H taldeko kideak egongo dira bolondres lanetan, eta pintxo bakoitzeko eskatuko den euroa elkartasunerako bideratuko da. Ea ekimenak zer nolako erantzuna duen, eta horren arabera etorkizunera begira erabakiko dugu bide beretik jarraitzea edo ez”.

Gune alternatiboa probalekuan

POXTA ZAHAR TALDEAK TXOSNAGUNEAN ETA PROBALEKUAN PARTE HARTUKO DUELA IRAGARRI DU.



Egapeko Jaione Jauregi eta Poxta Zaharreko Eneko Salaberria txosna batzordeko kideak dira.

Poxta Zahar taldeak aurtengo jaietan txosnagunearen osagarri izan nahi duen gune berria jarriko du probalekuan, Lekaio ondoan. Gune alternatiboa izan nahi duela ondorioztatu daiteke. Gazte taldeak nolanahi ere argi utzi nahi du bi eremuetan lan egingo duela. Jaien aurkezpen ekitaldian Jaione Jauregi Egape dantza taldekoak eta Eneko Salaberria Poxta zahar taldekoak bi gune hauen egitarauaren berri eman zuten.

Salaberriak berak gune berria sortu izanaren azalpenak eskaini zituen: “Jaien inguruan irakurketa egiten hasi ginen eta konturatu ginen giroa Jakutegi plazara mugatzen zela. Aukera edo eskaintza bakarra izanik, Poxta Zahar taldetik gune berri bat sortzeko ekimena hartu dugu jaietan bi giro sortu eta jendeak aukera zabalagoa izan dezan. Txosnaguneko lanak alde batera utzi gabe, gure txosna probalekuan jartzea erabaki dugu. Kontzertuak eta beste zenbait jarduera burutzeko eszenarioa ere egokituko dugu bertan”.

“Konturatu ginen giroa Jakutegi plazara mugatzen zela. Aukera edo eskaintza bakarra izanik, Poxta Zahar taldetik gune berri bat sortzeko ekimena hartu dugu”

OLINPIADEN ORDEZ, BANDERA JOLASA
Iaz Olinpiadek behar besteko arrakasta ez zutela izan eta, bandera jolasa antolatu dute ostiralerako: “Espero dugu gazte asko, haur txikiak bagina bezala, herrian zehar korrika ikustea”.
Gune alternatibo horretan musikak tarte berezia izango du. Gau tematikoak antolatu dituzte. Ostiralean mosh gaua antolatu dute herriko metal taldeen parte hartzearekin. Larunbatean, aldiz, rap eta reggae gaua eta igande arratsaldean, berriz, musika akustikoa. Igandekoa arratsaldean hasiko da, bertan hiru talde arituko dira modu akustikoan. Igandeko kontzertua blues musikako hirukote batekin amaituko da.



"la Caixa"

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Idiazabal, 20-22
20130 Urnieta
943 306 310

ITXASPE

sanmigel jai zoriontsuak!

FRUTATEGIA, IZOZKIAK ETA GOZOKIAK

Zelaialde, 2 • URNIETA TEL.: 943 009 427

Egaperen bideoklipa, mendeurrena gogoan

MENDEURRENEKO EKITALDIEN ARTEAN IKUSMINA PIZTU DU EGAPE DANTZA TALDEAREN BIDEOKLIPAK.



Herriko toki esanguratsuenak azalduko dira bideoan.

Egape dantza taldeak, Urnietak herri izaera lortu zuela 400 urte bete diren honetan, ez ohiko jarduera burutu zuen udan. Bideoklip baten grabaketa egin zuen, eta horren emaitza aurtengo jaietan ikusteko aukera izango da. Airez ateratako irudi askorekin, dan-

tzan ari diren bitartean Urnietako ikuspegi harrigarriak erakutsi nahi dituzte. Txosnagunean aurkeztuko dute ostiral iluntzean, oilasko afariaren aurretik. Han eskaini ondoren, bideo hori internet sarean eskegiko dute. Diotenez, bideoklip bikaina egin dute.



Udako egun eguzkitsuetan burutu ziren grabaketa saioak.

Sanmielak 2015

Irailak 24, osteguna

- 18:30 Kalejira Zubitxo plazatik Bolatokira.
- 19:00 Txosnen irekiera ekitaldia Bolatokia eta Jakutegi plazan.
- 20:00 Patata tortila lehiaketa txosnatan.
- 23:00 Flamenko gaua. DJ Katxorro.

Irailak 25, ostirala

- 17:00 Erraldoi eta buruhandiak, Plazido Muxikatk abiatuta.
- 17:00 Mahai jokoen txapelketa, zahar etxean.
- 17:30 Bandera jolasa Poxta Zaharren eskutik.
- 18:00 Jaietako zapia jartzea haur jaioberriei.
- 18:00 Graffiti tailerra, DJ Amine eta break dance saioa probalekuan.
- 18:45 Kanpai jotzea, Mielaren jaitsiera eta pregoiaren irakurketa.
- 19:00 Txupinazoa, batukada plazan.
- 19:30 On Bosko Banda plazan.
- 20:30 "Urnietak hegapean" bideokliparen aurkezpena txosnagunean.
- 21:00 Oilasko afaria txosnagunean.
- 22:30 Mosh gaua probalekuan: Cohen, Flattened frogs massacre, Lionhead eta Pinotxet.
- 23:00 Kalera eta Esne Beltza zuzenean txosnagunean.

Irailak 26, larunbata

- 09:00 Helduen Kontzejupeko pala txapelketako finalak.
- 11:00 Haurren dardo txapelketa Dardokan.
- 11:00 Artisautza azoka plazan.
- 12:00 Emakumezkoen koadrilaren irteera plazatik.
- 12:30 Trikipoteoa plazatik.
- 14:00 Emakumezkoen koadrilaren bazkaria Frontoitabarnan.
- 14:30 Bazkari herrikoia txosnagunean.
- 16:30 Jolasak Lourdes Iriondo parkean.
- 16:30 Haur ginkana Plazido Muxika plazan.
- 16:30 Bikote itsuen dardo txapelketa Dardokan.
- 16:30 Artisautza azoka plazan.
- 17:00 Emakumezkoen koadrilaren irteera, txarangaz lagunduta.
- 17:30 Elektrotxaranga kalejira.
- 18:00 Txatarra kale ikuskizuna plazan.
- 18:00 Iribarren orkestra Plazido Muxikan.

- 19:00 Urdanbor danborradaren irteera Kañoyetan elkarteko fusilariekin batera.
- 19:45 Urdanborren saioa elizan.
- 22:30 Mariachi Alma Tapatia plazan.
- 23:30 Urdanbor danborradaren irteera.
- 24:00 Aberri Txarrak eta Ze Esatek! txosnagunean.
- 23:00 Rap-Reggae gaua probalekuan: Danoise, Sherpa, Etos, DJ Amnestesia.

Irailak 27, igandea

- 10:00-13:00 Txorizo eta sagardo postua plazan, Perurekin GKeren eskutik.
- 11:00 Kalejira, haur danborrada.
- 12:00 Danborradaren elkargunea plazan.
- 12:00 Sardin jana Plazido Muxikan.
- 12:30 Toka txapelketa plazan.
- 14:00 Bazkari herrikoia, Iñistorraren eskutik.
- 16:00 Bertso saioa Urnietar Prestu omenaldi ekitaldia Juxto Egañari.
- 17:30 Pintxo-pote solidarioa plazan.
- 17:30 "SuperH superheroia" kontaketa eta marrazketa. Marrazkiekin erakusketa.
- 18:00 Jolas herrikoia haur eta helduentzat probalekuan.
- 18:30 Willy Etxeberria zesta punta jaialdia.
- 19:00 Arratsalde akustikoa probalekuan.
- 19:00 Gaubela errometia eta irrintzi lehiaketa plazan.
- 19:00 Taloak txosnagunean.
- 20:30 Dantza-Soka herrikoia, erromeria plazan.
- 21:30 Zuloak dokumentala txosnagunean.

Irailak 28, astelehena

- 09:30 Diana Txanbolinen eskutik.
- 10:30 Alkate txikien izendapena: Fatima Abila eta Jon Lertxundi. Belauntxingoa dantza saioa.
- 11:00-13:00/16:30-19:00 Haur eta gazte parkea Egapeko jolastokian.
- 16:30 Haurren Kontzejupeko eskupelota finalak.
- 17:30 Potxin eta Patxin pailazoak plazan.
- 19:00 Diskofesta plazan.
- 20:00 Alkate txiki botere uztea.

SEDA BELARRAK
ELORRI
HERBODIETETIKA

Ondo pasa Sanmielak

Yurramendi, 19 © 943 556 437 - 20130 Urnietak

Jai zoriontsuak igaro!

EGAPE IKASTOLA
-
SANMIELAK 2015

www.egape.org
www.egapebhi.org

Jai egitaraua

21:30 Kokakola eta barea ikuskizuna txosnagunean: Ramon Agirre, Inazio Tolosa.

Irailak 29, asteartea

09:30 Diana Txanbolinen eskutik.
10:45 Alkate soinua.
11:00 Meza nagusia.
12:00 Apar festa Plazido Muxikan.
12:00 Udal omenaldia On Bosko eta salesiarrei, ikastetxearen sorreraren 50. urteurrenean.
12:30 Txanbolin banda, musika eta dantza plazan ikastetxeetako ikasleak lagunduta.
14:00 Bazkaria Oianumen.
18:00 Erraldoi eta buruhandien eta Bosko Anitz txarangaren kalejira.
18:30 Pilota jaialdia, afizionatu mailako erremontea eta esku-pilota.
19:00 Laiotz taldea plazan.
21:05 Mielari agurra, udaletxeko balkoitik kanpai dorrera.
21:15 Zezen suzkoa.
21:30 Azken traka.

Urriak 2, ostirala

18:30 Ongi etorri pottoki Denda Berrikoen antzezlanaren Saroben.

Urriak 3, larunbata

16:00 Txirrindularitza kriteriuma Idiazabal kalean.
18:30 Musical, zaharren egoitzan.
18:30 Mendi bizipenak hitzaldia Leikaion, Alex Txikon mendizalaren eskutik.
19:00 Dantza ikuskizuna Saroben.
20:30 Ondartxo abesbatza elizan.



Aberri Txarrak irudian, larunbat gauean txosnagunean arituko dira zuzenean.

Urriak 4, igandea

10:00 Diana Txanbolinen eskutik.
11:00 Meza nagusia.
11:00 Pasaka pilota erakustaldia.
11:30 Zaldi proba probalekuan.
12:00 Pintxo-potea: munduko ardoak eta sagardo. Artisautza postuak, falkoneria erakustaldia, Ingurutxo eta Errenazimenduko dantzak plazan.
17:00 Herri kirol erakustaldia probalekuan. Herriko trikitilarien kalejira.
18:00 Txekor jate solidarioa eta sagardo dastaketa plazan.
19:00 Egan taldea plazan.
21:00 Jaiari agurra.
21:15 Zezen suzkoak.
21:25 Azken traka.

Oharrak auto gidarientzat

Udalak aurtengo jaietan trafikoan izango diren gorabeheren ordutegia argitaratu du, eta bereziki erreparatu beharrekoa da jarraian zehaztutako eguntan:

Irailak 25, ostirala

17:00-18:30 Erraldoien kalejira dela eta mozketak izango dira.
22:00-06:00 Idiazabal kalea moztuko dute. Bus geltoki bakarra izango da. Zaharren egoitzaren parean.

Irailak 26, larunbata

18:00-06:00 Idiazabal kalea moztuko dute. Bus geltoki bakarra izango da. Zaharren egoitzaren parean.

Aparkalekua Andoaindik doazenentzat

Herrigunera iritsi eta lehen biribilgunean, ezkerretara.

Esne Beltza zuzenean



Disko berria prestatzen ari badira ere, ostiral honetan txosnagunea dantzan jarriko dute.

Jai egitarauan zehazturik ez badator ere, ostiral honetan **Esne Beltza** taldea zuzenean arituko da Urnietako txosnagunean. Egundoko ezustea izan da taldearen jarraitzaileentzat, eskualde-

an asko baitira haien kantuen zale. Biharamunean beste talde ezagun bat ere zuzenean arituko da Urnietan, **Ze Esatek** hain zuzen. Bietara jende asko hurbilduko da.



Ze Esatek! taldea txosnagunean zuzenean arituko da, larunbat honetan.



Cohen Urnietako musika taldeak Mosh gauan parte hartuko du, ostiral honetan probalekuan.

**Urnietan hazi,
on bizi
eta erosi**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

on bizi
urnieta

**GOZOTEGI
BONBONERIA**

ARTISAU

Gora Sanmielak!

Errekalde kalea, 14 - 20.130 URNIETA - 943 008 406
Zarautz ibilbidea, 76 - 20.018 DONOSTIA - 943 226 584

Erakustaldi ikusgarria

PUNTA KO HAMAR SEGALARI PROBA AZKAR ETA BIZIAN LEHIATU ZIREN ZABALETA APARKALEKUKO GOIKALDEAN.



Julen Gabirondo urnietarra Euskal Herriko selekzioko elastikoarekin aritu zen lehian.

Azkartasunezko lehen sega erakustaldia jokatu zen Urnietan, aurreko igandean. Ikusle ugari bildu zen Zabaleta aparkalekuko goikaldera, Euskal Herrian diren segalaririk onentsuenak ikusteko gogoz. Banaka chun metroko karratuko belar zatian eta taldeka erreleboetako bi probetan, honako hamar segalari aritu ziren lanean: Julen Gabirondo, Suharri Irazustabarrena, Iñigo Mercader, Jexux Mari Goenaga, Andoni Urrutia, Jon Otegi, Mikel Berakoetxea, Bixente Mitxelena, Jexux Mari Ormaetxea "Urki"

eta Igor Esnaola. Oso saio ikusgarriak eta biziak izan ziren, segalariei oso denbora laburrean daukaten guztia ematera derrigortzen dieten horietakoak. Ikusitakoa segarako zaletasuna pizteko modukoak gertatu zen. Urnietarrek eta kirol jarduera honen zaletuek Euskal Herriko txapeldun berri den Julen Gabirondo herritarra bertatik bertara animatzeko eta zoriontzeko aukera eduki zuten ere.

Sega lehiaketak Xoxokako jaietan jarritra dauka hurrengo hitzordua.



Urnietako lasterketan parte hartu zuten hamar segalariak.

Bertso afaria

URNIETAR ASKO JAIK HASTEKO GOGOZ DAUDELA IRUDIKATU ZEN OIANUMEN K O BERTSO AFARIAN.



Mahai ugari bete zen bertso afarian. Argazkian, eskuinaldean, Laburu eta Peñagarikano bertsolariak.

Bertso afaria Sanmielen atarian egitea tradizio bilakatzen ari da. Jaiaren gose edo, berrehun lagun hurbildu zen Oianumera. Jai giro aparta sortu-

zen Miela batzordeak antolatutako afarian. Bertsoan Agin Laburu eta Anjel Mari Peñagarikano giroa are gehiago hobetzen ahalegindu ziren.

Danborrak eta salsa



Larunbat goiz osoan zehar Egape ikastolako jolastokian saioa egin eta gero, kalejiran irten ziren.

Buruntzantzan taldea ez dago eskuak gurutzaturik egoteko eta aurreko larunbatean batukada eta salsa tailer bikoitza antolatu zuen. Bi hitzorduetara

kanpoko herrietako zaletuak hurbildu ziren. Azaroan afrikar perkusio tailerra antolatu dute. Hori baino lehen, jaietan dena ematera irtengo dira.



BETERRI-BURUNTZAKO ATEKARIA
Aiurri

Udako jaien albistegia Aiurriko webgunean:

- Argazkiak, bideoak eta kronikak ikusgai
- Jarrai itzazu Sanmielak 2015
- www.aiurri.com webgunean
- **Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak**

Iñaki apaiza gogoan

URNIETAKO PINTURA LEHIAKETAN IÑAKI ARANZADI PROTAGONISTA NAGUSIA; ARRASTOA UTZI DUEN SEINALE.



Jon Jauregi irabazleak Miren Martiarena zinegotziaren eskutik jaso zuen lehen saria.

Iñaki Aranzadiren erretratuak eraman du aurtengo pintura lehiaketaren lehen saria, egileak apaizaren begirada transmititzen asmatu zuelako. Gainera, duela egun gutxi zendu izanak ere koadroari "esanahi berezia" gehitzen diola azaldu du epaimahaiak: "Gaia Urnieta da orokorrean, ez du zertan Urnietako paisaia baten pintura izan behar. Hala, herriko apaizak zeresan handia utzi duenez eta bere begirada harrapatzea lortu duenez, Jon Jauregik irabazi du lehiaketa". Egilearen esanetan, pozik zegoen saria irabazteaz gain, Iñakiren nortasunaren esentzia ateratzea lortu duelako: "bere ezaugarri bereizgarriek erraztu didate erretratua margotzea; ahoak, sudurrak eta beti soinean zeraman txapelak". Apaiza ondo ezagutzen zuela eta haurra zenean berarekin mendira joaten zela gaineratu du; "nire omenaldi txikia egin nahi izan diot".

Jon Jauregi urnietarra margolari eza-guna da; udan esaterako Donostian ikusgai izan dira bere artelanak. Eta, noski, era berean bera izan da lehen urnietarra. Margolan horrek kokapen berezia merezi du.

PAISAIK GAIENDUZ

Koadro guztien artean, erretratu bakarra izan da Jon Jauregirena, gainontzeko guztiek Urnietako paisaiak margotu baitituzte. Beraz, bost mar-

golanetatik lau paisaiak izan dira. Fernando Uretarenak zeresana izan du, berarentzat izan baita bigarren saria "desagertzen ari den Urnieta basati eta kaotiko bat" margotzeagatik. Pozarren jaso du albistea berak ere, eta azaldu duenez, txoko hori asko gustatu zaio, desorden eta mugimentu asko zuelako. Argitasun eta iluntasunarekin jokatzuz, etxe baten atzealdeko nahasmena islatu du. Lortutako emaitzarekin "oso gustura" dagoela azpimarratu zuen.

Azkenik, hirugarren saria Ana Belen Atxagaren paisaiak jaso zuen. Buruntzaldeako mendiak agertzen dira bertan. "Askotan pasatzen naiz bertatik eta lekua asko gustatzen zait. Gainera, ondo ezagutzen dut eta erraza egin zait margotzea", adierazi zuen sari banaketa ekitaldian. Ez zuela saria jasotzea espero gaineratu zuen. Toki horretatik bi ikuspegi aukeratu zituen lehiaketarako; bata aurtengo pinturan agertzen dena da, eta bigarrrena datorren urtean egingo duela aurreratu zuen.

SARI BANAKETA:

- Jon Jauregi:
Don Iñaki, apaizaren erretratua.
- Fernando Ureta:
Villa Julitaren ikuspegia.
- urnietarra, Ana Belen Atxaga:
Buruntzaren ikuspegia.



Ureta, Martiarena, Jauregi eta Atxaga sari banaketa ekitaldian.

Iñistor jaia igande honetan

JUXTO EGAÑAK IGANDE ARRATSALDEAN EUSKALTZALEEN OMENALDIA JASOKO DU JAKUTEGI PLAZAN.



Ostegun honetan amaituko da Iñistor jairako bazkaria erosteko epea. Kantoin eta Gurian salgai daude.

Iñistorra euskaltzaleen biltzarrak bederatzigarrenez antolatuko du Iñistor jaia, eta besteak beste, toka, herri bazkaria, bertso saioa, omenaldia eta irrintzi lehiaketa antolatuko dituzte. Aurtengo protagonista nagusia Juxto Egaña txistulari eta euskaltzalea izango da. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da omenaldi ekitaldia.

"Ongi merezitako omenaldia da, Urnietan denok edo ia denok ezagutzen dugun pertsona da", adierazi zuen Joxeba Lizeagak jaiaren aurkezpenean. Igandearekin izanik, Iñistor jaira jende asko hurbiltzea espero dute. Iñistorrakoak behintzat eguerdian hasi eta iluntzera arte lan eta lan arituko dira.



Iluntzean Iñistorrak herriko irrintzilari onenak Euskal Herriko gainerakoekin igo nahi ditu taula gainera.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza

Super H-ren Mielatxo




Mielatxoren papir ikurra erosi eta jaietan soinean eramateko aukera paregabea da.

Super H elkarteak helburu nagusia du, haurren gaixotasun arraro eta onkologikoen ikerkuntzan laguntza ematea. Hori dela eta, aurtengo jaietan soinean

eramateko papir ikurrak egin dituzte. Egun hauetan erosteko aukera badago Kantoi tabernan eta Eder liburudendan.

Pausoka jaietan



Aurten ere txosna jarriko dute. Bertan, egunero gazta edo urdai azpikoa baten pisua asmatzeko jokoa martxan jarriko dute. Irabaziekin elkarteko lurzorua erabe-

rritu nahi dute. Bestetik, pultserak salgai jarriko dituzte Markel haurrak udazkenean beharrezko duen terapia berezia jaso dezan. Adi, bestalde, urriko jaialdiari.

On Bizi jaiarekin bat

ELKARTEAK ERABERRITZE PROZESUA BIZI DUEN ARREN, JIAIAZ GOZATZEKO DEI EGIN DIE HERRIKIDEEI



On Bizi elkarteko kideak, artxiboko irudian.

On Bizi merkatarien elkarteak lehenik eta behin merkataritza sustatzea du helburu, baina herrian eragile izan nahi du. On Bizi jaiak antolatu izan ditu azken urteetan, baina aurten ez da horrelakorik izango. Besteak beste, eraberritze prozesua bizi dutelako. Jai zehatzik antolatu gabe, jaietan laguntza ematen jarraituko dute. Aurtengo jaien aurkezpen ekitaldian Mikel Pagola alkateak horixe bera aipagai izan zuen, “aurreko urteetan egun berezia antolatzen zuten. Aurten ez dute horrelakorik egingo baina horrek ez du esan nahi jaietan murgilduko ez direnik. Jarduera ezberdinetan laguntza emango dute. Beraz, merkatarien lana ere nabarmendu behar da”.

Marisa Hernandez Toñi frutadenda-ko merkataria On Biziko lehendakariak egungo elkartearen berri eman dio Aiurriri, “aldaketa egon da gure helburuetan eta lan egiteko moduetan. Sortu ginenean On Bizi jaiak antolatzeari ekin genion, baina aurreantzean dinamika hori aldatu dugu. Herriko eragileek antolatzen dituzten ekimenetan bat egitea erabaki dugu. Besteak beste, Urnietako mendi maratona edota Herri Biran. Gure produktuak eskaintzea, horixe izan da gure ekarpena. Eta arrazoa? Bada,

azken aldi honetan merkatarien prestakuntza sakontzea lehenetsi dugulako. Garai berriotan trebatzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Helburu argia dugu: herritarrei zerbitzu onena eskaintzeko prest egotea. Eta helburu horretara iristeko tailerrak eta ikastaroak jasotzen ari gara. Herritarrak etorkizunean ez dira guregana etorriko herrian gaudelako, zerbitzu ona eskaintzen dugulako baizik”.

Herri eragileak babestuz jarraituko dute, “sariak emateko garaian, adibidez, laguntzeko prest egongo gara”.

Kezkaz bizi dute herrian dagoen merkataritza eskasia, “eskaintza zabalagoa eskaini beharko luke gure herriko merkataritzak. Alor batzuetan hutsuneak daude, besteak beste jantziei edota zapatei dagozkienak. Hutsune horiek aztertu beharko genituzkeela iruditzen zaigu. Eta dagoeneko Urnietako Udalari kezka horren berri eman diogu. Norabide berean ari gara lanean. Helburuetan ados gaude. Azterketa sakon bat egiteko prest agertu gara, herritarren premien berri jakiteko”. Jaurilaritzarekin batera, azterketa sakon hori egin nahi lukete. On Bizi etorkizunera begira lanean ari da. Hamasei kide dira, gaur egun.

CERAMICAS NOGALES S.L.
URNIETA

- Sukaldeko altzariak
- Aluminio aroztegia
- Egur aroztegia
- Elektrizitatea
- Igeltsua
- Hargintza
- Iturgintza
- Pintura

Ondo pasa Sanmieletan

Errekalde, 10
20130 Urnieta
Tel./Faxa: 943 009 284
Tel.: 943 550 624
ceramicasnogales@ceramicasnogales.com



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Ainhoa Elola, EAJ-PNVko zinegotzi berria



Egibar, Izagirre, Elola eta Goenaga EAJ-PNVko Udal taldea Andoaínen.

Ainhoa Elolak ordezkatu du Gregorio Olasagasti udaletxeko eginbeharretan, irailean hasita. Jeltzaleek argitaratutako oharrean, Andoaingo herriaren egunerokotasunean erabakigarri izateko borondatearekin eman dio hasiera ikas-turteari.

Ilusioz eta indarberrituta dagoela adierazi du EAJ-PNVk, “gaur gaurkoz geldirik edo blokeatuta dauden eta andoaindarrei zuzenean eragiten dieten arazo eta erronka ezberdinak konpontzeko” gogoz. Mari Jose Izagirrek gidatzen duen taldeak erabakigarria izan nahi du Andoaingo egunerokotasunean, “udalgintza berrakibatzeke ezinbestekoa izango da kontsentsu zabalak bilatzea. Ana Carrere alkateari bere gutxiengo numerikoa kontsentsu eta akordioak bilatzeko aukera gisa uler dezan dei egiten diogu, aurreko legealdian erakutsi zuen jarrera autoritario eta kontziliaezinari uko eginez”.

Hauteskundeak osatu zirenetik lau hilabete igaro direnean, Izagirre andoaindarrengatik babestua sentitzen da, “EAJ-PNV izan baita aurrez ordezkari zuten alderdi guztien artean bozka kopuruan haztea lortu duen bakarra. Andoaínek behar duen benetako aldaketa lideratzetik gutxira geratu gara, aldaketa horren protagonista izatea gustatuko litzaiguke, baina nahiz eta lortu ez dugun, inoiz baino legitimatua sentitzen gara Andoaínarako prestatu eta aldarrikatzen dugun proiektua mahai gainean ipintzeko”.

AINHOA ELOLA

EAJk bere udal taldea berrantolatatu du, Ainhoa Elolak ordezkatu du baitu Gregorio Olasagasti. Azken honek uztaillean utzi zuen bere kargua.

Andoaingo EAJrentzat lehentasunen artean daude eskualdeko garapen agentzia, ur azpiegitura sarea, hondakin organikoaren edukiontzia edota bakea eta bizikidetzaren garatzea

EGITASMOAK

Zinegotzi talde berria osatu ondoren, Izagirrek aurreratu du udazken honetan proposamen ezberdinak plazaratu eta elkarbanatzeko asmoa duela. Esaterako, Beterri eskualdeko garapen agentzia. Zeina “aurreko legealdian, EHBilduk aldebakartasunetik proiektua martxan ipiniz jaso zuen porrotaren ondoren”. EAJ-PNVk garapen agentzia berriaren osaketari buruzko lan dokumentu bat prestatu du gainerako alderdi politiko- en, enpresen, irakaskuntza zentroen eta Lanbide bezalako herriz gaindiko erakunde- en ekarpenetara irekia dagoena. “Ahalik eta kontsentsu zabalena lortzen saiatuko gara, Buruntzaldea osoari zerbitzu emango dion agentzia integrala martxan ipini ahal izateko, eta horretarako, abiapuntu gisa konkezio eta definizio ariketa bat egin dugu”.

EAJ-PNVk ur hornidura sarearen ordezkapen eta konponketa plan bat martxan ipintzea aldarrikatu du. “Hoditerien egoera kritikoa ikusirik, honen konponketara bideratuko den inbertsio plan zehatza planifikatu behar da, horretarako Udalen lehentasun ekonomiko berriak finkatuz”.

Hondakin organikoaren bilketarako edukiontzia marroia ezartzea, bake eta bizikidetzaren inguruan kontsentsu zabalak lortzea... aztergai horiek ere mahai gainean jarriko dituzte.

Izena emateko epea zabalik dago, 150 lagun bildu arte

“Andoain Motorfest” jaialdiaren edizio berria

Andoaingo motorzaleak elkarteak “II. Andoain motorfest” jaialdia antolatuko du urriaren 17rako, eta dagoeneko izen ematea zabalik dago. Are gehiago, jaialdiaren egitaraua lotuta dute dagoeneko. Bigarren edizioan parte hartu nahi duenak Olajauna tabernan edota Laboral Kutxa-ko kontu korrante zenbakian 20 euro ordaindu behar ditu. Diru horrekin festan parte hartu, bazkaldu eta kamixeta eskuratuko dute. Ospakizunean parte hartzeko gehienezko kopurua 150 lagunekoa izango da.

Izena emateko azken eguna, berriz, urriaren 13a da. Informazio osoa: 635 74 40 95



Iazko lehen bilkurako irudia.

(Iurgi) eta 647 697 534 (Iban). Urriaren 17ko jaiaren egitaraua honakoa izango da: 09:00 Bilkura Zumea plazan. 10:00 Ibilbidearen irteera.

13:30 Goiburura iritsiera. 14:30 Herri bazkaria. 17:30 Sari banaketa. 19:30 Kontzertuak: Lemon Twist, Overloud.

Lortu Zure Saria

BEZERO ASTEA SALKINEN

LORTU ZURE SARIA

IRAILAREN 28TIK URRIAREN 3RA



KIROL ALBISTEAK

Urnieta KE pilota



PALETA GOMA, SENIORRAK
Urnieta 11-25 Batzokiko
Jon Iturbe- Unai Arozena
Zestoa 25-9 Urnieta
Jon Iruretagoiena-Xabier P.Arenaza
Usurbil 25-10 Urnieta
Iban Barrutia-Xabier Pavón

LARRUZKO PALETA, SENIORRAK
Urnieta 35-22 Txost
Aitor Argiñarena- Xabier Garagorri
Oiangu 35-20 Urnieta
Edu Erostarbe- Imanol Lujanbio
Urnieta 35- Endaiarrak
Xabier Amantegi- Mikel Jauregi
*Aurkaria ez zen agertu.

ASTEBURUKO PARTIDAK
Irailak 26, larunbata
10:15.
Laruzko paleta:
Urnieta 2- Endaiarrak.
Urnieta 3- Oiangu.
15:15.
Eskuz binaka:
Urnieta kadeteak-Lazkao.
Gomazko paleta:
Urnieta- Azkoitia.
Irailak 27, igandea
11:30.
Paleta goma:
Urnieta-Idiazabal.
Eskuz, senior maila:
Urnieta-Oiarpe.

Futbola, ordutegiak

PREFERENTE
1. jardunaldia:
Allerru 1-3 Urnieta
2. jardunaldia:
Urnieta-Martutene
Irailak 25, ostirala. 20:00. Urnieta.

1. ERREGIONAL MAILA
1. jardunaldia:
Luberri 1-1 Euskalduna
2. jardunaldia:
Euskalduna-Munibe
Irailak 26, larunbata. 17:30.

Hasiera bikaina

LEHEN ORRIALDETIK DATORJ

Bi jardunaldi eta bi garaipen. Ezustekoa mailaz igo den talde batentzat...
Iñigo Gurrutxaga: Egia esan, zorte ona eduki dugu, lehen partidari batez ere. Hiru goleko aldeaz irabazi genuen Lesakan, baina oso efektiboak izan ginen eduki genituen aukerak ondo probestuz, aurkariak ez bezala. Oriokoren aurkako larunbateko garaipena, bestalde, merezitakoa izan zela iruditzen zait, nahiz eta azken minutuan sartu gola.

Pozik egoteko moduan...
I.G. Aurre denboraldia nola joan den ikusita, baietz esan behar; zalantzak bagenituen hasieran. Jokalariren bat edo beste falta zaigu iaztik, fitxaketak poliki-poliki joan dira sartzen... Ez dugu taldeak benetan daukan gaitasuna neurtzeko astirik izan.

Christiam Guijarro, iazko goleatzailea Pasaiaira joan da hiru-garren mailara...
I.G. Bere 25 golak eguzkia bezain borobilak izan ziren guretzat iaz. Bikaina jokalaria! Harekin egin genitzakeen zenbait gauza ahaztu behar izan ditugu; egoera berrira moldatu behar izan dugu.

Mailari eustea eskatu ohi zaio igo berri den talde bati...
I.G. Horixe eskatzen zaio debuta egiten duenari. Ulergarria da planteamendu hori, baina nolanahi ere, ez zait iruditzen komenigarria denik geure buruari soka lepo inguruan jartzea. Aurrera begira, ez dut us-



Iñigo Gurrutxaga gazteak bi urte darama erregional mailako Euskalduna entrenatzen, gazteen mailako taldeetan jardun ostean.

te amestea denik pauso bat harago eman dezakegula pentsatzea. Zergatik ez hartu, esaterako, Martutene taldearen eredu? Iaz ohorezko mailara igo zen taldea izan arren, sailkapenean erditik gora amaitu zuen denboraldia. Partida guztiak irabazteko beharrezkin aritu ginen iazko denboraldian, finalak izan ziren ia denak, eta bai jokalariek eta baita neuk ere izugarri ikasi genuen esperientzia hartatik, zer den pre-sopean jokatzea batik bat.

Bi partidak irabazita, helburuak aldatzen hasi behar ote dira?
I.G. Argi daukagu oinak lurrean jarri behar ditugula. Markatu den bidea ondo eginez gero, etorriko dira emaitzak eta me-rezi dugun postua eskuratuko dugu azkenean.

Aldageletan umorea izango da nagusi egunotan...
I.G. Ez dakizu zenbatekoa! Emozioz kabituz ezinik, pozez gainezka daude mutilak.

Transmititu behar diet garai latzak helduko zaizkigula ziurrenik, eta prest egon behar dugula ordurako, psikologikoki batez ere.

Zer moduzko giza taldea zuzentzen duzu?
I.G. Ikaragarria! Baloratzen dut egunero jartzen duten ilusioa eta inplikazioa, eta egiten duten ahalegina eta sakrifizio pertsonala. Prestatzaile fisikoak (Asier Lopez) gogor astintzen ditu, asko exijitzen die, eta hori dena onartzeko futbolarekin maiteminduta egon behar duzu derrigor. Ez baitugu ahaztu behar amateurrek direla, zaletasunagatik etortzen direla entrenatzera, lantokian lan jarduna egin ostean. Are gehiago, badago baten bat entrenatu ostean gaueko erreleboa egitea egokitzen zaiona.

Partidak bideoz grabatu eta hurrengo egunetan jokalariekin aztertzen omen dituzu.
I.G. Klubak Asier eta biongan

LIGA	
ERREGIONAL OHOREZKO A	
2. jardunaldia:	
Euskalduna 1-0 Orio	
3. jardunaldia:	
Hondarribia-Euskalduna	
Irailak 26, larunbata. 16:30.	
Sailkapena:	
1. Mutriku	6 puntu
2. Euskalduna	6 puntu
3. Tolosa	6 puntu

erabateko konfiantza jarri du, eta logikoa iruditzen zaigu eskura dauzkagun baliabide guztiak erabiltzea, taldearen errendimendua hobetzeko asmoz. Iaz, iPad-a eskuan hartu eta aurkariaren partidak grabatzen genituen; euren markatzeko sistema –mistoa, indibiduala, eremuka– aztertzen genuen eta geure jokalariei bakoitzari aparteko detaileak jakinarazten genizkien. Aurten, geure partidak grabatzen hasi gara, akatsak aztertzeko eta zuzentzen saiatzeko asmoz.

Bigarren urtea duzu Euskaldunan. Kluba (egitura, funtzionamendua...) ezagutzeko denbora edukitu duzu.
I.G. Aukera handiak dituela esango nuke etorkizunari begira. Bide onetik doazen neurriak hartzen ari da zuzendaritza azken urteetan, eta esate batera, goiz ala berandu helduko da eguna non kanpoko klubaren batek tentatuko duen Euskaldunako jokalariren bat, eta honek oso gustura dagoela Andoainen eta bertan jokalaria gisa hazten jarraitu nahi duela erantzungo diona.

ELGOIBAR NAGUSI UHARTE ETA URNIETA TALDEEKIN BATERA JOKATUTAKO TXAPELKETAN

Aurreko larunbatean senior mutilek triangularra antolatu eta jokatu zuten, Elgoibar eta Uharteko taldeen aurka jokatu zuten. Urnietarrek maila handiagoko taldeen aurka maila txukuna eman zuten. Uharteren aurka ozta-ozta galdu zuten, 15-14. Elgoibarren aurkako partida orekatua izan zen. Etxekoek 5-1 defentsari esker aurkariaren jokoa oztopatu zuten.
Gauzak horrela, Urnieta Balerdi harategikoek pozik amaitu zuten den-

boraldi aurreko jardunaldia. Lagunarteko partidatan erakutsitako mailaren ostean, klubean Lurraldeko bigarren mailan denboraldi on bat egiteko esperantza dute, lehen mailara igozteko helburu nagusiarekin.
Emaitza gehiago:
Senior neskak 21-19 Leizaran
Jubenil neskak 21-26 Egia
Kadete neskak 18-17 Egia
Kadete mutilak 26-25 Ordizia
Infantil mutilak 16-19 Bera Bera





KIROL ALBISTEAK

Mikel Iturria, Euskadi fundazioko txirrindularia

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Ezin hobe biribildu duzu denboraldia Euskaldun Torneoa irabazita. Ez zinen oso baikor Altsa-suko proba jokatu aurretik.

Mikel Iturria. Ez, nahiko baldarra naizelako esprintean. Proba, berez, ez da gogor-gogorra eta nire aurkaria, Rafa Marquez, ni baino azkarragoa. Garaipena lortu ahal izan nuen, eta kontent nago.

Zer garrantzi dauka lorpenak?

M.I. Denboraldiari distira eman dio. Egia esan, sasoi hasieran ez zen nire helburua. Izan ere, lidergoa eskuratu eta ezin izan dut defendatu, beste proba batzuk nituelako helburu. Irabaztea hobe, ez irabaztea baino, dena den.

7 garaipen izan dira denera, 19 podium eta 5 sailkapen 5 onenen artean, itzuli garrantzitsuetan. Lorpen zerrenda bikaina!

M.I. Nire ustez bai. 10 urte atzera, palmares horrekin, nik neuk aukeratuko nuke ze talde-ekin egin jauzia profesionale-tan, baina egun, egoera oso bestelakoa da. Zain geratu beste erremediorik ez dut. Iraganean talde gehiago zeuden Euskal Herrian eta Espainian, Euskaltel zegoen, eta gaur ez. Aukera txikiagoa da, eta pasatzea, ondorioz, zailagoa.

Nola salduko zenuke zure burua, zu fitxatu nahi zaituen managerak elkarriketa hau irakurriko balu?

M.I. Postu on asko pilatu ditut itzulietan, eta horrek erakusten du txirrindulari erregularra naizela. Ibilbide luze eta gogorretan ondo moldatzen naiz. Esango nioke 2013 eta 2014an Euskadi Fundazioarekin Kontinental mailan aritu nintzela, profesionalak alboan nituela, eta Tour des Pays de Savoie, Ronde d'Issard edota Giro del Valle de Aosta probatan emaitza interesgarriak lortu nituela. Gaitasuna badut profesionalekin lehiatzeko, eta horrek konfiantza ematen dit.

Txirrindularitza zale peto ez dena-



Mikel Iturria.

rentzat, noren jarduna hartuko zenuke zure isplitzat?

M.I. Beno, zuhurtzia eta errespetu handienarekin, Mikel Nieveren tankerako txirrindularia naizela esango nuke. Oso 'diesel'-a naiz, eta esfortzu luzeak ditut gustuko.

Bi urte egin zenituen afizionatuetan, bi urte koska bat igota, Kontinental mailan, eta azken hau, berriro itzulera afizionatu mailara. Mundu hori ezagutzen duzu. Asko estutzen al duzu zure burua zain egon behar horretan?

M.I. Beno, hiru urte atzera Kontinental mailan lehiatzea ezustekoa izan zen, azken orduan hartu zuen erabakia Fundazioak, eta ondo moldatu nintzen. Pasa den neguan afizionatuetara bueltatuko nintzela banekien, eta rebalida, azken aukera moduan hartu nuen. Denboraldi ona egin eta erakusleihan jarri, berriro ere profesional mailara bueltatu ahal izateko. Nik nire esku zegoena egin dut. Orain beste batzuk ari dira ni laguntzen, ateak irekitzen saiatzen... Ea zerbait gorpuzten den. Pazientzia bidaia lagun ona dela ikasi dut urte hauetan.

Zer dakizu, publiko egiteko moduan?

M.I. Ba Fundazioko Migel Madariaga, Jorge Azanza eta Gorka Gerrikagoitia ate batzuk jotzen ari direla. Orain aste batzuk

“Nik nire esku zegoena egin dut. Orain beste batzuk ari dira ni laguntzen, ateak irekitzen saiatzen... Pazientzia bidaia lagun ona dela ikasi dut urte hauetan”

itxita zeuden ate batzuk ireki egin direla dirudi, eta ea horiek gurutzatzeko aukera daukaten.

Panorama nahiko garbia da: Murias Team, Caja Rural-RGA edo atzerria.

M.I. Bai, Movistar taldeak eskaintzaren bat egiten ez badit (barrez), hori da egoera. Murias Team-ek ez dakit ze bide egingo duen: kontinental mailan jarraitu, kontinental-profesional mailako talde bilakatzen saiatu... Caja Rural-RGAk kontinental-profesional mailan jarraituko duela jakina da. Hori litzateke aukerarik onena, atzerrian aritzeak baldintza ekonomikoak kaskarragoak izan daitezkeela suposatzen baitu, eta egutegia ere, on-ona ez agian.

Txar-txarrean, zer egingo zenuke zure burua afizionatuetan mantentzeko beharrean ikusiko bazenu?

M.I. Horretan ere pentsatu dut, badaezpada. 14 urte daramatzat bizikleta gainean, milaka kilometro egiten urtero, eguraldi txarra eta hotzarekin sufritzen, gutxienetan gozatzen, eta afizio hau ofizio bihurtzeko ametsa oso indartsua da nigan. Beste urtebete jarraituko nuke, arrazoi simple bategatik. Ea Euskaltel taldearen antzeko beste proiektu bat sortzen den Euskal Herrian. Garbi dago aurtan ez dela sortuko, iraila aurrera doalako eta ez delako ezer entzuten, baina hurrengo urtean sortuko balitz zer? Pentsa bizikleta ganbaran uzten dudala urrian, eta euskal txirrindulariekin hornituko den proiektu bat sortzen dela 2016ko udazkenean. Bizitza osoan damutuko nintzateke. Hori bai, hurrengo urtea, azkena, ziur. Aukerarik ez badut ikasten hasiko naiz, bizibidea beste nonbait lortzeko.

Lau urnietar gazte Mutrikuko triatloi herrikoian



Oier, Mikel, Juani eta Zubi Mutrikuko proban.

Aurreko larunbatean Mutrikuko triatloi herrikoia ospatu zen eta bertan Urnietako lau mutil gaztek parte hartu eta sekulako maila erakutsi zuten. Triatloi herrikoien helburua kirola jarduera horretan trebatzea da. Hamabost urtetik gorako edonork parte har dezake; emakume nahiz gizo-

nezko. Egin beharreko lanak hauexek dira: 370 metro igeri itsasoan, 12 kilometro bizikletan eta 2,5 kilometro korrika.

Sailkapena:

10. Oier Urbizu Kortaxarena	46:02
18. Ander Zubizarreta Ansa	47:40
19. Iñigo Juanikorena Berasategi	47:55
21. Mikel Iraola Uribarrena	48:06

Areto futbol txapelketa

Donostiako Hogar Extreme-ño taldeak Andoain ordezkatu zuen Buruntzaldeko futbol txapelketan, eta bera

izan zen irabazlea. Final aurrekoan Usurbil garaitu zuen, eta finalean Lasarte garaitu zuen penaltietan.

Aurre denboraldiko txapelketa Allurralden



Leizaran taldeak bere flickr gunean jardunaldiko argazkiak ikusgai ditu.

Aurreko larunbatean Leizaran Eskubaloi Kirol Klubak antolaturiko V. Aurrendenboraldiko eskubaloi txapelketa ospatu zen Allurralden. Lau klub ezberdinetako hamahiru talde lehiatu ziren, 200 jokalariren parte hartzearekin. Infantil mailan Leizaran

A nagusitu zen, Corazonistas eta Corralesen aurretik. Kadete mailan eta senior mailan Corazonistas nagusitu zen. Jubeniletan, berriz, etxekoak nagusi izan ziren.

Saskiaren zozketan, klubak zenbaki saritua 0145 izan dela aditzera eman du.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen adizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

IRAILAREN 24TIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **Irrational man**, Woody Allen zuzendariarena. Aktore nagusia Joaquin Phoenix. Larunbata, 26. 19:30/22:00. Igandea, 27. 19:30. Astelehena, 28. 19:30/22:00. Haurrentzat: **Atrapa la bandera**. Larunbata, 26. 17:00. Igandea, 27. 17:00.

Ikastaroak

Urnietan

- Lekaio kultur etxeko ikastaroak: Joskintza, makilaia, sendabelarrak, euskal kantagintza, argazkilaritza digitala, Feng-shui eta zur taila. Izen ematea, Lekaion: Urriaren 9ra arte. San Joan plaza, z/g. harrera@urnieta.eus.
- Antzerki tailerrean izena emateko aukera zabalik dago. Ikasturtea urriaren 9an abiatuko da, Saroben bertan. Tailerra ostiralero burutuko da, iluntzeko 19:00etatik 21:00etara.

Andoain, Bastero

- Pintura, arte aplikatuak eta egur taila. Lehen aldiz izena emango duenarentzat, epea irailaren 30ean amaitzen da. Ikastaroa urriaren 5ean hasiko da.
- Zuen emakume elkartearen ikastaroetan izena emateko epea egun hauetan amaituko da. Ikus, astekari honetan 4. orrialdea.

Farmaziak

Eskualdea

- Guardiako farmaziak.
- Andoain:**
Zatarain, asteburu osoa.
- Urnietan:**
Odriozola, asteburu osoa. Idiazabal kalea, 18.
- Eskualdea, gauez:**
Etxebeste.
Elkano, 9. Hernani.

Bilkurak

Andoain

- Andoaingo EH Bilduren eskutik, **"Kataluniak erabaki, Euskla Herriak erabaki"** lelopean kontzentrazioa. 18:30. Juanita Alkain plaza. Irailak 25, ostirala.

Urnietan

- Jubilatuen elkarten deialdiari erantzunez, pentsio duinen aldeko bilkurak. 19:00. San Juan plaza. Urriak 1, osteguna. 12:00. Donostia. Urriak 3, larunbata.

Auzolana

Andoain

- Eguzkik auzolanean ibaia garbitzeko deia egin du. 15:30. Allurralde. Urriak 3, larunbata.

Erakusketak

Andoain, Bastero

- **"Itsaspeko bihotzak"** haurrei zuzenduta. Azken eguna: urriak 2.
- **"Bizibideak"**, Gartxot Arregiren eskutik. Ogibide ezberdinei buruzko autoerretatuak. Urriaren 9tik aurrera.

Musika

Andoain, Bastero

- Opus Lirica, soprano eta tenore ezberdinen parte hartzearekin: "Don Giovanni", "Cosi fan tutte", "La Traviata", "La Bohème" eta hainbat gehiago. 20:00. Auditorioa. Irailak 25, ostirala.

Bertsoa

Andoain, Bastero

- Gipuzkoako bertsolari txapelketa 2015, final zortzirena. Sarrerak salgai. 17:30. Auditorioa. Urriak 11, igandea.

Sanmielak

Urnietan

- Asteburu honetan eta hurrengoan. Egitarau osoa erdiko gehigarri berezian.

Azoka

Andoain

- **Garagardo azoka** Irunberrin: kodiloa, saltxitxak, purea eta euskal pastela. 22 garagardo moeta ezberdin, aukeran. Afariak: 20:00-23:00. Irailak 24, 25 eta 26. Jarduera osagarriak: **Irailak 24, osteguna** 22:00 Dantzaldia: Rantxe-rak, balsak eta bertsoak. **Irailak 25, ostirala** 20:00 eta 22:30 La Jodedera zuzenean.

Deialdia

Andoain

- **Katramila** antzerki eskolaren deialdia 2015-2016 ikasturterako. Izen ematea irekia irailaren 24ra arte. Bastero: 17:00-19:00. katramila@gmail.com. 688 710 097.

Dantza

Andoain, Bastero

- **"Ilargiaren malkoa"**, Haatik dantza konpainiaren eskutik. 21:30. Auditorioa. Urriak 9, ostirala.


Euskara

Andoain

- AEKk jakinarazi nahi du matrikulazio garaia zabalik dela. Klaseak urriaren 1ean hasiko dira eta ekainaren 22an bukatuko dira. Extremadura Kalea, 5. 943 59 17 04.
- Mintzodromoa Andoainen. 12:00. Juanita Alkain plaza. Urriak 3, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Jokinek hilaren 19an hiru urte bete zituen. Ondo pasa zenuelakoan, muxu handia! Amona eta aitona.

URNIETA

ZORIONAK



3, 2, 1... zorionak **Maialen**!! Iritsi da eguna! 8 urte! Kandela denak itzali ta opari asko ireki. Muxu asko familia guztia- ren partetik!

URNIETA

ZORIONAK XABAT ETA GALDER



Irailaren 30ean 2 urte beteko dituzue. Disfrutatu zuen eguna, eta ondo ondo pasa, pototok! Etxekoak.

ANDOAIN

■ **ZORION AGURRAK:**
Oso erraza da. Eta dohainik. Bidali garaiz, eta ondo zehaztu herria ere: andoain@aiurri.com urnieta@aiurri.com
Whatsapp bidez: 619 163 537.

Zumeatarraren deialdia

Aurten ere, Zumeatarra klubak haur eta gazteei zuzendutako atletismoko jarduera martxan jarriko du. Interesa izan dezaketena milientzat bilera bat presta-

tu dute. Bertan jarduerari buruzko buruzko informazioa emango dute: ordutegia, ikasleen adina...
Irailak 25 ostirala.
18:00. Ubitarte, bilera gela.

Podologia zerbitzua

Andoaingo Udaren Gizarte Zerbitzuetako lansailak "Anbrosia Olabide" Gizarte Zerbitzuetako Podologia zerbitzuaren esleipenerako epea ireki du. Aipatutako zerbitzua Andoaingo jubilatuen edo pentsiodunei zuzen-

duta dago. Informazio gehiago Gizarte zerbitzuetako lansailan, Atarian edo www.andoain.eus webgunean, kontratatzailearen profilean.
Eskaerak aurkezteko epea: Urriak 2, ostirala.



DATORREN AIURRI ASTEKARIA IRAILAREN 24AN ARGITARATUKO DA